



ESPIRITUAL TASUNA ABIAPUNTU HARTUTA GOGOETA EGITEKO ARGIBIDEAK

Fitxa honetan, GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA gaia lantzean fedetik abiatuta gogoeta sakon bat egiteko argibideak bildu nahi ditugu.

Kontua ez da eduki gehiago ikustea, ezta beste fitxa edo saio batzuk egitea ere; kontua da jarduerak aurrez aurre jartzen diguten munduari eta egoera zehatzari so egitea, fedearen begiekin.

Urrats edo argibide hauek iradokitzen ditugu guk; talde bakoitzak egokitu egin ditzake (eta egokitu behar ditu) bere berezitasunaren arabera.

HASIERAKO OTOITZA:

Jainkoaren aurrean jarriko gaituen otoitz batekin ekingo diogu.

Gune hau Jaunarekin egoteko une bat izatea nahi dugu.

Isilune bat egingo dugu. Badakigu gure buruan, gure bihotzean, zarata handia, sentimendu asko, pertsona asko daudela...; isilune hori bilatu behar dugu, ezinbestekoa baita Jaunak esan nahi diguna entzun ahal **IZATEKO**.

ISILTASUNEAN prestatuko gara, beraz, **ELKARGUNE** hori lortzeko. Jarrera erosoa bilatu behar dugu, sakon arnasa hartu, gure barnetik zarata atera, eta lasaitu.

PROPOSATUTAKO JARDUEREI BURUZKO LAN.

- ✓ Fitxetan proposatzen zaigun edukia berrikusiko dugu.
- ✓ Gatazkarik gabeko teknologiaren webgunean:
<http://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/que-puedo-hacer-yo/>
proposamen zehatzak ditugu, jarduteko eta kanpainari atxikitzeko.

ARIKETA-PROPOSAMENA

GOGOETA PERTSONALA:

Gogoeta hau izango dugu abiapuntua:

"... bihotzean aldaketa bat egin behar dugu: gure barneko erresistentziei aurre egin, esker oneko begirada bat eman kreazioari, errealitate zaurituak bihotza ukitu diezagun utzi, gizabanako gisa eta talde gisa konpromisoa hartu, aldaketak sartu gure bizimoduan, eta erabakimenez lan egin maila kulturaleran, instituzionalean eta politikoan".

PATXI ÁLVAREZ SJ, JESUITEN JUSTIZIA SOZIAL ETA EKOLOGIA IDAZKARITZAKO ZUZENDARIA, SMH LANAREN SARRERA.

Une bat hartuko dugu Jainkoaren aurrean —Harengandik hurbil— gaudela sentitzeko; entzuteko jarreran jarriko gara, eta egindako jarduerekin ikasitakoaz jabetuko gara. Konturatuko gara elkarrekin otoitz egiten ari garela Jainkoak zer esaten digun eta zertara deitzen gaituen jakiteko.

- 1.- Zer sentimendu geratzen zait jarduerak erakutsi digun errealitatea ikusi ondoren?
- 2.- Zerk eragiten dit poza?
- 3.- Zerk eragiten dit tristura, kezka?
- 4.- Deirik sumatzen dut? Gauza zehatzen bat egiteko gogoia sentitzen dut? Sentitzen dut zerbait egin dezakegula talde gisa?

2., 3. eta 4. galderen erantzunak idatziz jasoko ditugu, partekatzeko.

TALDEAN PARTEKATZEKO:

Askatasun- eta lasaitasun-giroan, pertsona bakoitzak egin duen **gogoeta partekatuko du**.

Taldean lantzeko proposamenen bat sortzen bada, une honetan jasoko da, berriro ekiteko eta zehazteko. Garrantzitsua da horrelako ideien oharra idaztea, gal ez daitezen; **eta gaia taldean lantzen denean, ideia horiek sartzea.**

AMAIERAKO ESKER-EMATEA.



-en proiektu bat

ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org



lortzeagatik

www.gatazkarikgabekoteknologia.org